

2022KO IRAILAREN 29AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

**ACTA DE LA SESION CELEBRADA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL
EL 29 DE SEPTIEMBRE DE 2022**

MODUA: Presentzialki

TOKIA: Batzar aretoa

EGUNA: Hogeita bederatzia

HILABETEA: Iraila.

URTEA: Bi mila eta hogeita bi.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost
(5)

MEDIO: Presencial

LUGAR: Salón de Plenos

DIA: Veintinueve

MES: Septiembre

AÑO: Dos mil veintidós

HORA DE COMIENZO: Diecinueve horas.

CARACTER DE LA SESION: Ordinaria.

CONVOCATORIA: Primera

NUMERO DE MIEMBROS QUE LA COMPONEN:
Seis (5)

MAHAIBURUA / PRESIDENTA:

Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

BILDUAK / REUNIDOS:

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal
Sozialistak)

ETORRI GABEA / AUSENTE:

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

IDAZKARIA / SECRETARIA:

ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

1.- AURREKO AKTA. Aurreko Aktaren onespena.
2022-07-28.

1.- ACTA ANTERIOR. Aprobación del acta de 28-
07-2022.

Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da
berarekiko zer esanik ez dagoelako.

Tras informar el acta, se aprueba por unanimidad.

**2.- LURRALDE BATZORDEKO
PROPOSAMENAK:**

**2.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE
TERRITORIO:**

a.- LIZITAZIOA: ZERBITZUAK LIZITATZEA:
Beasaingo udalerrian Agauntza, Eztanda eta Oria
ibaietako landare inbaditzaileen erradikazioa,
landaketa berriak burutzea eta ibaia zaborra
garbitzea. 2022HIBO0152

a.- LICITACIÓN DE SERVICIOS: Erradicación de
plantas invasoras, nuevas plantaciones y limpieza
de basuras de los ríos Agauntza, Eztanda y Oria en
el término municipal de Beasain.

Lurralde Batzordeko proposamenaren berri eman da: aipatutako lizitazioa egitea deialdia publikoak eginez, baldintza administratibo eta teknikoak onartuz:

“1.- *Prozedura*: irekia eta sinplifikatua publikitatearekin. Lizitazio elektronikoa.
2.- *Izapidetzea*: arrunta

3.- *Urtealdi bakoitzeko lizitazio prezioa*: 33.057,85 € + BEZ

4.- *Egikaritze epea*: 2 urtealdi. Urtealdi bakoitzean 6 hilabete. Urtebetealdiko 2 luzapen.

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantzarioa*:

Urteko negozio-bolumena, edo kontratuari dagokion eremuan urteko negozio-bolumena, azken hiru urteetan izandako urterik onenari dagokiona, enpresaburua eratzeko edo jarduerak hasteko eta eskaintzak aurkezteko daten arabera. Negozio-bolumena gutxienez kontratuaren urtealdi bateko balio zenbatetsiren behin eta erdi izan beharko du (49.586,77 €).

6.- *Kaudimen teknikoa*:

- a) Azken hiru urteetan zehar egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, kontratuaren helburuaren izaera bera edo antzekoa dutenak. Gutxienez 23.140,49 €-koa izan beharko du. (Kontratuaren batez besteko urterokoaren % 70) exekuziorik handieneko urtean, zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko edo pribatuak adierazten dituzten ziurtagiri bidez abalaturak. Zerbitzu bat kontratuaren xedearen berdina edo antzekoa den zehazteko, ezaugarrien taula honetako 2. paragrafoan adierazitako CPV koderako jo beharko da.
- b) Diziplina anitzeko profesional-talde tekniko bat izatea, enpresan integratuta egon ala ez, gutxienez honako hauek osatuko dutena: Lanen Zuzendaria eta koordinatzailea (1):

Se ha informado la propuesta de la comisión de Territorio referente a la licitación, aprobando para ello los pliegos administrativos y técnicos:

“1.- *Procedimiento*: abierto y simplificado con publicidad. Licitación electrónica.
2.- *Tramitación*: ordinaria.

3.- *Precio de licitación anual*: 33.057,85 € + IVA

4.- *Plazo de ejecución*: 2 anualidades. 6 meses para cada anualidad. 2 prórrogas de un año.

5.- Solvencia económica y financiera:

Volumen anual de negocios, o bien volumen anual de negocios en el ámbito al que se refiere el contrato, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del empresario y de presentación de las ofertas.

El volumen de negocio deberá ser al menos una vez y media el valor estimado de una anualidad del contrato (49.586,77 €).

6.- *Solvencia técnica*:

- a) Relación de los principales servicios o trabajos realizados de igual o similar naturaleza que los que constituyen el objeto del contrato en el curso de los tres últimos años que deberá alcanzar al menos la cuantía de 23.140,49 €. (70% de la anualidad media del contrato) en el año de mayor ejecución, avalada por certificaciones que indiquen los importes, las fechas y el destinatario público o privado de los mismos.
Para determinar si un servicio es de igual o similar naturaleza al que constituye el objeto del contrato, se deberá acudir al código CPV indicado en el apartado 2 de este cuadro de características.
- b) Contar con un equipo técnico multidisciplinar de profesionales, integrados o no en la empresa, que estará integrado como mínimo por: Director u coordinador de trabajos (1):

- Biologian lizentziatua edo Ingurumen Zientzietako lizentziaduna edo masterra edo gradu baliokidea. Landare inbaditzaileak erradikatzeko eta ibaiak garbitzeko lan-ekipoa (2): - Eskatutako titulaziorik gabe Hizkuntza-gaitasuna. Zuzendaria eta koordinatzailea, Europako Erreferentzia Esparruko C1 (EGA edo baliokidea) dutela egiaztatatu beharko du.

7.- *Aurkezteko epea, ordua eta lekua:* Hogeiei egun naturalak, 23,55arte. Litzazio elektronikoa.

8.- *Adjudikazio irizpideak:*

Formula automatikoen bidez baloratzen ez diren irizpideak (30 puntu)

Memoria bat idatziko da, honako alderdi hauek zehatz-mehatz garatuz:

- Lan-proposamena. (10 puntu) Beasaingo Agauntza, Estanda eta Oria ibaietan landare inbaditzaileak erradikatzeko, landaketa berriak egiteko eta zaborrak garbitzeko aurkeztutako lan-proposamena baloratuko da. Lan-proposamenean, gutxienez, agiri honetan jasotako zeregin bakoitzaren definizioa eta garapena, erabili beharreko metodologia eta horien plangintza jaso beharko dira. Baldintza teknikoen agiriko 3.1,3.2 eta 3.3 paragrafoan ezarritakoa hartu beharko da kontuan, gutxienez.
- Dibulgazio-proposamena. (10 puntu) Agiri honetan jasotako lanak gauzatzearen ondorioz herritarrei egindako dibulgazio proposamenei buruzko planteamendua baloratuko da. Dibulgaziorako erabili beharreko metodologia, erabili beharreko bideak, egin beharreko ekintzen kopurua eta horien egokitasuna hartuko dira kontuan, eta, gutxienez, preskripzio teknikoen pleguko 3.3.4. paragrafoan ezarritakoa bete beharko da.
- Auzolanaren proposamena. (10 puntu) Auzolana edo auzo-lanaldiei buruzko proposamena baloratuko da, eta kontuan hartuko dira lanaldiak garatzeko erabili beharreko metodologia, egin beharreko ekintzen kopurua eta egokitasuna, eta,

- Licenciado en Biología o licenciatura o máster o grado equivalente en Ciencias Ambientales. Equipo de trabajo de erradicación de plantas invasoras y limpieza fluvial (2): - Sin titulación exigida. Competencia lingüística. En el caso del director y coordinador, deberá acreditar estar en posesión de: C1 (EGA o equivalente) del Marco Europeo de Referencia.

7.- *Plazo, hora y lugar para la presentación de proposiciones:* Veinte días naturales hasta las 23:55. Licitación electrónica.

8.- *Criterios de adjudicación.*

Criterios no evaluables automáticamente (30 puntos)

Se redactará una memoria en la que se desarrolle de forma detallada los siguientes aspectos:

- Propuesta de trabajo (10 puntos). Se valorará la propuesta de trabajo presentada para la erradicación de las plantas invasoras, nuevas plantaciones y limpiezas de las basuras en los ríos Agauntza, Estanda y Oria de Beasain. La propuesta de trabajo deberá incluir al menos la definición y el desarrollo de cada una de las tareas contempladas en el presente pliego, la metodología a emplear y la planificación de los mismos. Como mínimo deberá considerarse lo establecido en el apartado 3.1.,3.2 y 3.3 del pliego de prescripciones técnicas.
- Propuestas de divulgación. (10 puntos) Se valorará el planteamiento referente a las propuestas de divulgación a la ciudadanía derivado de la ejecución de los trabajos contemplados en el presente pliego. SE tomarán en consideración la metodología a emplear para la divulgación, así como los canales a emplear, el número de acciones a realizar y su idoneidad, y como mínimo deberá cumplirse en lo establecido en el apartado 3.3.4 del pliego de prescripciones técnicas.
- Propuesta de jornadas vecinales. (10 puntos). Se valorará la propuesta referente a "Auzolana" o jornadas de trabajo vecinal, tomándose en consideración la metodología a emplear para el desarrollo de las jornadas, el número de

gutxienez, preskripzio teknikoaren pleguko 3.3.5. atalean ezarritakoa bete beharko da. Azterketa eta ulermena errazteko, aurkeztutako dokumentazioak gehienez 6 orri A4 orri izango ditu, aurkibiderik gabe, Arial 11 letra-motarekin aurpegi hutsarekin eta 1,5 lerro-arte tartearekin Indize bakarra eta orrikatua izango du. Euskarri elektronikoa aurkeztuko da (PDF fitxategi bakarra).

acciones a realizar, así como su idoneidad, y como mínimo deberá cumplirse en lo establecido en el apartado 3.3.5. del pliego de prescripciones técnicas. Para facilitar su análisis y comprensión la documentación presentada constará como máximo de 6 hojas A4, sin incluir índices, a simple cara con tipo de letra Arial 11 e interlineado espaciado 1,15 líneas. Contendrá un índice único y paginado. Se presentará en soporte electrónico (un único archivo PDF).

Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (70 puntu)

Criteria mediante la utilización de fórmulas automáticas (70 puntos)

1. irizpidea: Zerbitzua eskaintzeko urteko prezioa: 35 puntu.

1. Precio anual para la prestación del servicio: 35 puntos.

0 puntu emango zaizkio lizitazioaren oinarritzko aurrekontua berdintzen duen eskaintzari, eta 2 puntu gehituko zaizkio % 1eko beherapen bakoitzeko; gehienez 100 puntu emango dira, beherapenen batek % 50 gainditu ezean, orduan 100 puntu emango baitzaizkio, eta gainerakoa interpolatu egingo da.

Sobre 100, se otorgará 0 puntos a la oferta que iguale el presupuesto base de licitación e incrementando 2 puntos por cada 1% de baja, siendo la puntuación máxima de 100 puntos, salvo que alguna baja supere el 50 %, en cuyo caso se le otorgarán 100 puntos y se interpolará el resto.

$$B_{max} \leq 50\% \gg P = 200 \times B$$

$$B_{max} \leq 50\% \gg P = 200 \times B$$

$$B_{max} > 50\% \gg P = 100 \times B / B_{max}$$

$$B_{max} > 50\% \gg P = 100 \times B / B_{max}$$

Izanik,

Siendo,

P: Baloratu beharreko eskaintzaren puntuazioa.

P: Puntuación de la oferta a valorar

B: Baja = $1 - (\text{Eskaintzako prezioa}) / (\text{Lizitazioaren gehieneko aurrekontua})$.

B: Baja = $1 - (\text{precio ofertado}) / (\text{Presupuesto máximo de licitación})$

Bmax: Onartutako gehienezko beherapena.

Bmax: Baja máxima admitida.

Horrela lortutako emaitzari atal ekonomiko honek puntu kopuru osoan duen portzentajea aplikatuko zaio.

Al resultado así obtenido, se le aplicará el porcentaje que representa este apartado económico en el total de puntos.

OHI DENA BAINO GUTXIEGIZKO
ESKAINZATZAK

OFERTAS ANORMALMENTE BAJAS

Eskaintza neurrigabeak edo ohiz kanpokoak direla pentsatuko da, onartutako eskaintzen batezbestekoa baino 15 puntu beherago dauden eskaintzak. Eskaintza ekonomikoaren bideraezintasuna zehazteko parametro

Se considerará oferta anormalmente baja, aquella cuya baja sea 15 puntos inferior a la media de las ofertas admitidas. Se considerará como parámetro objetivo para determinar la inviabilidad de la oferta económica aquellas que no alcancen a cubrir los

objektibotzat hartuko dira soldata-betebeharrei, gizartesegurantzako kotizazioei, absentismoari, prestakuntzari, mediku-azterketei eta abarri erantzuteko beharrezkoak diren kostuak estaltzera iristen ez direnak.

2. irizpidea: landare inbaditzaileak erradikatzeko, ibaiak garbitzen, landaketak burutzen, dibulgazioa eta auzolana egiten emandako ordu kopurua: 35 puntu.

Honela baloratuko da: Landare inbaditzaileak erradikatzeko, ibaiak garbitzeko, landaketak egiteko, dibulgazio lanak eta auzolana burutzeko ordu gehien ematen dituen eskaintzaileak gehieneko puntuazioa lortuko du. Plegu teknikoan ezarritako gutxieneko ordu-kopurua (850 ordu) berdintzen duen eskaintzak 0 puntu lortuko ditu eta eskaintako ordu kopuru gehikuntza 20 orduko sortatan burutu beharko da. Gainerako eskaintzak modu proportzionalen baloratuko dira, honela:

$$P = (N^{\circ}HO \times PM) / N^{\circ}MH$$

Izanik,

P: Baloratu beharreko eskaintzaren puntuazioa

N^oHO: Baloratu beharreko eskaintzaren ordu-kopurua

N^oMH: Lizitzaileek eskaintako gehieneko ordu-kopurua

PM: Onartutako gehieneko puntuazioa

Guztizko ordu-kopuruaren eskaintzaren bideraezintasuna zehazteko parametro objektibotzat hartuko dira egindako eskaintza ekonomikoarekin lotuta soldata-betebeharrei, gizarte segurantzako kotizazioei, absentismoari, prestakuntzari, azterketa medikoei eta abarri erantzuteko beharrezko kostuak estaltzera iristen ez direnak.

costes necesarios para atender las obligaciones salariales, cotizaciones de seguridad social, absentismo, formación, revisiones médicas, etc.

Criterio 2: Número de horas totales dedicadas a la erradicación de plantas invasoras, limpieza de los ríos, plantaciones, divulgación y jornadas vecinales: 35 puntos

Se valorará de la siguiente manera: El ofertante que presente mayor número de horas de dedicación para la erradicación de plantas invasoras, limpieza de los ríos, plantaciones, divulgación y jornadas vecinales obtendrá la puntuación máxima. La oferta que iguale el número mínimo de horas totales establecido en el pliego técnico (850 horas) obtendrá 0 puntos, y el aumento del número de horas respecto a las del pliego deberá realizar en bloques de 20 horas. El resto de las ofertas se valorarán de forma proporcional de la siguiente manera:

$$P = (N^{\circ}HO \times PM) / N^{\circ}MH$$

Siendo,

P: Puntuación de la oferta a valorar

N^oHO: Número de horas de la oferta a valorar

N^oMH: Número máximo de horas ofertado por los licitadores

PM: Puntuación máxima admitida

Se considerará como parámetro objetivo para determinar la inviabilidad de la oferta del número de horas totales, aquellas que relacionadas a la oferta económica del precio anual de los costes salariales realizada no alcancen a cubrir los costes necesarios para atender las obligaciones salariales, cotizaciones de seguridad social, absentismo, formación, revisiones médicas, etc.

Balorazio-irizpideen dokumentazio osagarria, formula automatikoak erabiliz.

Documentación complementaria a los criterios de valoración mediante la utilización de fórmulas automáticas

Proposamenaren bideragarritasun-azterlana:

Estudio de viabilidad de la propuesta:

Eskaintzaren bideraezintasuna zehazteko parametro objektiboak ezartzeko, eskainitako guztizko orduen kopuruari eta egindako eskaintza ekonomikoari erreparatuta, eta soldata-betebeharrei, gizarte-segurantzako kotizazioei, absentismoari, prestakuntzari, azterketa medikoei eta abarri erantzuteko behar diren kostuak estaltzea lortzen den bereizteko, enpresa lizitatzailleek bideragarritasun-azterketa bat aurkeztu beharko dute, alderdi horiek zehatz-mehatz jaso eta justifikatzeko.

Con el fin de establecer los parámetros objetivos para determinar la inviabilidad de la oferta atendiendo al número de horas totales ofertadas, así como a la oferta económica realizada, y discernir si se alcanza a cubrir los costes necesarios para atender las obligaciones salariales, cotizaciones de seguridad social, absentismo, formación, revisiones médicas, etc., las empresas licitadoras deberán presentar un estudio de viabilidad donde se reflejen y justifiquen pormenorizadamente dichos aspectos.

Bideragarritasun-azterlana jasotzen ez duten proposamenak edo eskaintza betetzearen ondoriozko kostuak estaltzen direla justifikatzen ez dutenak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

Las propuestas que no incluyan el estudio de viabilidad o no justifiquen que se cubren los costes derivados del cumplimiento de la oferta, serán excluidos del proceso selectivo.

9.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

9.- *Lugar, día y hora para la apertura de proposiciones:* la apertura de plikas se efectuará en el lugar, día y hora que se publique en el perfil del contratante.

10.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

10.- *Documentación a presentar:* los licitadores deberán presentar la documentación que se indica en el pliego de condiciones administrativas.

11.- *Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak, gizarte arlokoa:*

11.- Condiciones especiales de ejecución de contrato de carácter social

- Lan-merkatuan emakumeek gehiago parte hartzea eta lan- eta familia-bizitza bateragarriak izan daitezen erraztea.

- Favorecer la mayor participación de la mujer en el mercado laboral y la conciliación del trabajo y la vida familiar.

- Langabeziari aurre egitea, batez ere gazte, emakume eta luzaroko langabeenari.

- Combatir el paro, en particular el juvenil, el que afecta a las mujeres y el de larga duración.

- Lantokian prestakuntza jasotzen laguntzea.”

- Favorecer la formación en el lugar de trabajo.”

Horrezaz gain aipatu da UR AGENTZIAK baimena eman duela erreka-ibilguan jarduteko, baldintza batzuk ezarriz. Baldintza horiek plegu teknikoan txertatu dira.

Además, se menciona que la AGENCIA DE AGUAS ha autorizado la actuación en el cauce del río, estableciendo una serie de condiciones. Estas condiciones se han incorporado al pliego técnico.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Tras realizar la votación se ha aprobado por unanimidad.

b.- OBRA ZIURTAGIRIAK:

b.- CERTIFICACIONES DE OBRA:

- Igartza futbol zelaiaren belar artifiziala: 1. ziurtagiria. 2022PROB0004

- Hierba artificial del campo de futbol de Igartza. 1ª certificación.

Aho batez ondorengo obra-ziurtagiria onartu da: Igartza futbol zelaiako belar artifiziala aldatzeko lanei buruzko lehenengo ziurtagiria: 222.494,56 €koa (BEZ barne).

Se aprueba por unanimidad el primer Certificado de Obra relativa al cambio de la hierba artificial del campo de fútbol de Igartza por importe de 222.494,56 €(IVA incluido).

- Kiroldegiko plaka fotoboltaikoak: 2. ziurtagiria. 2022OBMA0002

- Placas fotovoltaicas del polideportivo. 2ª certificación.

Aho batez ondorengo obra-ziurtagiria onartu da: Beasaingo Antzizar polikiroldegiko teilatuan instalazio fotovoltaiko bat gauzatzeko obrei buruzko bigarrenengo ziurtagiria: 151.575,37 €koa (BEZ barne).

Se aprueba por unanimidad la siguiente certificación de obra: Certificación 2ª de las obras de instalación de placas fotovoltaicas en la cubierta del polideportivo Antzizar de Beasain por importe de 151.575,37 € (IVA incluido).

- Oriamendi kaleko berrurbanizazioa. 6. ziurtagiria. 2021PROB0001

- Reurbanización calle Oriamendi. 6ª certificación.

Aho batez ondorengo obra-ziurtagiria onartu da: Oriamendi kalea eta Erauskin plazaren berrurbanizazio obrei buruzko seigarrenengo ziurtagiria: 95.489,53 €koa (BEZ barne).

Se aprueba por unanimidad la siguientes certificación de obra: Certificación 6ª de las obras de reurbanización de Oriamendi kalea y Erauskin plaza por un importe de 95.489,53 € (IVA incluido).

c.- OBRA ETA HORNIDUREN ESLEIPENA: Beasaingo Dolarea parkean haur parke inklusibo bat gauzatzea eta Trenbide kaleko haur parkea berritzea. 2022PROB0006

c.- ADJUDICACIÓN OBRAS Y SUMINISTROS:

Ejecución de un parque infantil inclusivo en Dolarea parkea y renovación del parque infantil de Trenbide kalea de Beasain.

Ezagutzera eman da, Kontratazio Mahaiaren proposamena, hots:

Se da a conocer la siguiente propuesta de la Mesa de Contratación:

“AURREKARIAK

“ANTECEDENTES

1.- 2022-07-28. *Gobernu Batzordeko erabakia deialdi publikoaren bidez aipatutako*

1.- 28-07-2022. *Acuerdo de la Junta de Gobierno Local aprobando la licitación de la mencionada*

kontratazioaren lizitazioa onartzeari buruzkoa. Horretarako plegu administratiboak eta teknikoak onartu ziren. Prozedura irekia eta tramitazio arrunta.

contratación. Para ello se aprobaron los pliegos administrativo y técnico. Procedimiento abierto y tramitación ordinaria.

2.- 2022-07-29. Euskadiko plataforman deialdia argitaratu zen.

2.- 29-07-2022. Publicación de la convocatoria en la plataforma de Euskadi.

3.- 2022-08-24. Proposamenak aurkezteko epearen amaiera.

3.- 24-08-2022. Fin del plazo de presentación de proposiciones.

4.- Epe horretan enpresa lizitzaile bakarra aurkeztu zen: HAGS SWELEK, S.A.

4.- En dicho plazo se presentó una única empresa licitadora:
HAGS SWELEK, S.A.

5.- A artxibo elektronikoko dokumentazioa kalifikatu ondoren egiaztatu zen, DEUC dokumentua datarekin eta sinatuta aurkeztu zuela eta dokumentu horretan adierazitakoaren arabera, eskatutako kaudimen ekonomikoa nahiz teknikoa betetzen duela.

5.- Calificada la documentación del archivo electrónico se constata que presenta DEUC fechado y firmado en el que consta tanto la solvencia económica como la técnica que se requiere.

6.- Beraz, lizitzaileari onartu egin zitzaion lizitazioan parte hartzea.

6.- Por lo tanto, la empresa licitadora fue admitida a la licitación.

7.- 2022-09-12an, 9,30etan B artxibo elektronikoa ireki zen (automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideekiko dokumentazioa). Lizitzaileak aurkeztutako dokumentazioa zerbitzu teknikoari pasa zitzaion txostena emateko. Txosten hori 2022-09-20ko datarekin eman zen eta Kontratazio Mahaiak ontzat eman zuen txostena eta bere gain hartu zuen. Lizitzaileak lortutako puntuazioa atal honetan, 25 puntutik 14,5 puntu.

7.- La apertura del sobre B (documentación relativa a criterios no evaluables automáticamente), se produjo el 12-09-2022, a las 9,30 horas.

La documentación presentada por la licitadora se pasó a informe de los servicios técnicos, el cual ha sido emitido con fecha 20-09-2022.

La Mesa de Contratación, da por bueno el informe emitido y lo asume. Se deja constancia que la puntuación obtenida por la licitadora es de 14,5 puntos sobre 25.

8.- 2022-09-20. 9,00etan C kartazala irekiera zen (formula automatikoen bidez baloratzen diren irizpideei buruzkoa):

8.- La apertura del sobre C (documentación relativa a criterios evaluables automáticamente), se produjo el 20-09-2022, a las 9,30 horas.

- Prezioa: 65 puntu
- Pleguan ezarritako epea baino handiagoa eskaintzea: 10 puntu)

- Precio: 65 puntos
- Oferta de un plazo superior al establecido en el pliego: 10 puntos)

Lizitazioa prezioa, 152.892,56 €koa da, BEZ gabe. Precio de licitación 152.892,56 € sin IVA.

9.- Enpresa lizitatuak aurkeztutako eskaintza: 131.488 € + 27.612,48 € (BEZ): 159,100,48 €. 9.- La oferta presentada por la empresa licitadora fue la siguiente: 131.488 € + 27.612,48 € (IVA): 159,100,48 €

10.- Lizitatuak guztira lortutako puntuazioa:

10.- Puntuación total obtenida por la licitadora es la siguiente:

LIZITATZAILEA Licitadora	Memoria	Eskaintza ekonomikoa	Pleguan ezarritako epea gainditzea	GUZTIRA Total
HAGS SWELEK, S.A.	14,5	18,20	10,00	42,70

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari (Gobernu Batzordea) ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

En consecuencia, la Mesa de Contratación efectuó la siguiente propuesta de acuerdo al órgano de contratación (Junta de Gobierno Local)

Lehenik: Beasaingo Dolarea parkean haur parke inklusibo bat gauzatzeko eta Trenbide kaleko haur parkea berritzeko obra eta hornidura, HAGS SWELEK, S.A. enpresari esleitzea.

Primero. Adjudicar las obras y suministros para la ejecución de un parque infantil inclusivo en Dolarea parkea y renovación del parque infantil de Trenbide kalea de Beasain a HAGS SWELEK, S.A.

Bigarren. Esleipena baldintza-pleguen (administratiboa eta teknikoa), eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da.

Segundo. La adjudicación se efectúa con arreglo a los pliegos de condiciones (administrativo y técnico) y a la oferta presentada por la empresa.

Hirugarren. Esleipen prezioa: 131.488 € + 27.612,48 € (BEZ): 159,100,48 €

Tercero. Precio de adjudicación: 131.488 € + 27.612,48 € (IVA): 159,100,48 €

Lauugarren. Egikaritze epea: 8 aste kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Cuarto. Plazo de ejecución: 8 semanas desde el día siguiente al de la firma del contrato.

Bosgarren. Berme epea: urte bete.

Quinto. Plazo de garantía: un año.

Seigarren. Kontratuaren arduraduna, Lurralde arloko koordinatzailea izango da.

Sexto. Se designa como responsable del contrato al coordinador del área de Territorio.

Zazpigarren. Esleipendunari eskatzea hamar egun balioduneko epean, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, dokumentazio hau aurkez dezala:

Séptimo. Requerir al adjudicatario para que en un plazo de diez días hábiles a contar a partir del siguiente al del requerimiento, aporte la siguiente documentación:

1. 6.574,4 €ko behin betiko fidantza.
2. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela

1. Fianza definitiva por valor de 6.574,4 €.
2. Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones

egiaztatzen duen ziurtagiria, EJZn alta emanda.

3. Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguru poliza, gutxienez a 600.000.00 €koa.

Zortzigarren. Fidantza eta bestelako dokumentazioa aurkeztu ondoren, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz eta ondoren, dagokion administrazio-kontratua sinatu beharko da.”

tributarias y para con la Seguridad Social, alta en IAE.

3. Póliza de seguro de indemnización por riesgos profesionales por importe no inferior a 600.000.00 €

Octavo. Tras presentar la fianza y demás documentación, se efectuará la adjudicación definitiva para lo cual se faculta a la Sr. Alcaldesa y posteriormente se deberá firmar el correspondiente contrato administrativo.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Tras realizar la votación se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira.

AUTO-TAXI ORDENANTZA

Nerea Manzidor Mendizabal andrearen galderari erantzunez, Alkateak jakinarazi du asmoa dela urriko plenora ordenantza eramatea, baina gertatu daitekeela ez iristea kontuan izanik hasierako onespren-proposamena baino lehen egin behar diren izapideak.

MAITEko IBILGUNETIK SENPEREra DOAN OINEZKO ETA TXIRRINDUEN BIDEA

Nerea Manzidor Mendizabal andrearen galderari erantzunez, Adur Ugartemendia lurralde batzordeko Lehendakariak esan du, orain berezi gabe geratu dela oinezkoen eta txirrinduan joaten direnen arteko bidea eta zoladura ere ez dela laua, nolabait ere txirrinduan doazenen abiadura moteldu arazteko. Dena dela seinalitika bertikala jartzea falta dela jakinarazi du, hain zuzen ere bidearen hasiera eta amaieran.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ETA EGUNEKO ZENTROKO LIZITAZIOA

Nerea Manzidor Mendizabal andrearen galderari erantzunez, ezagutzera eman da uztailaren

3.- RUEGOS Y PREGUNTAS

En el apartado de ruegos y preguntas se han formulado las siguientes:

ORDENANZA DE AUTO-TAXI

En respuesta a la pregunta formulada por Nerea Manzidor Mendizabal, la Alcaldesa informa que la intención es llevar la ordenanza al pleno de octubre, pero que puede ocurrir que no se llegue a la misma teniendo en cuenta los trámites previos a la propuesta de aprobación inicial.

CAMINO PARA CICLISTAS Y PEATONES ENTRE LA ROTONDA DE MAITE Y SEMPERE

En respuesta a la pregunta de Nerea Manzidor Mendizabal, el Presidente de la Comisión de Territorio, Adur Ugartemendia, dice que ahora ha quedado indiferenciado el camino para peatones y ciclistas y que el pavimento tampoco es llano, de alguna manera para reducir la velocidad de los que van en bicicleta. Informa que en todo caso falta la señalización vertical en el inicio y final de la vía.

LICITACIÓN DE ASISTENCIA A DOMICILIO Y CENTRO DE DÍA

En respuesta a la pregunta formulada por Nerea Manzidor Mendizabal, se informa que a finales de

amaieran baldintza pleguarekiko errekurtoa jarri zela, Dependentsiako Zerbitzuen Enpresa-Elkartearen aldetik eta eskatu zutela prozedura etetea errekurtoaren edukia ebatzi bitartean.

Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (KEAO) 2022-08-09an prozedura eteteko Ebazpena eman zuen, errekurtoaren edukia ebaztearen kalterik gabe.

Gertatzen da ordea, KEAOk oraindik ez duela Ebazpen hori eman eta horren ondorioz ezin dela prozedurarekin jarraitu.

Kontuan izanik Ebazpena ez ematea sortzen duen endredoa udalarentzat ezinbestekoa delako herritarrei zerbitzu horiek ematea interes publikoa dela medio, KEAOra deitzea komeni dela adierazi da, jakite arren noiz emango duen Errekurtoa ebatziko duen Ebazpena.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak hogeit gutxitan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.

julio se presentó recurso ante el pliego de condiciones por parte de la Asociación Empresarial de Servicios de Dependencia, solicitando la suspensión del procedimiento mientras se resuelve el contenido del recurso.

Con fecha 09-08-22 el Órgano Administrativo de Recursos Contractuales (OARC) dicta Resolución de suspensión del procedimiento, sin perjuicio de resolver el contenido del recurso.

Ocurre, sin embargo, que el OARC/KEAO aún no ha dictado dicha Resolución, por lo que no es posible continuar con el procedimiento.

Teniendo en cuenta los inconvenientes que genera la no emisión de la Resolución, ya que para el Ayuntamiento es obligatoria la prestación de estos servicios a la ciudadanía, se ha señalado la conveniencia de llamar al OARC/KEAO, para conocer la fecha en la que se dictará la Resolución que resuelva el Recurso.

Y sin más asuntos que tratar, la sesión ha finalizado a las diecinueve horas y cuarenta minutos, y yo como Secretaria doy fe extendiéndose la presente acta.